




BUSTURIA



ARMARRIAREN DESKRIBAPENA

Armarri erdibitua: 1., zilarrean arbola berde bat kolore bereko zelaian, eta otso igarolari bi enborrean, bat arbolaren aurrealdetik eta bestea atzealdetik; 2., urdinean, urrezko bost eleiza sotuer eran ipinita, eta zilarrezko burua haretx berde biz kargatuta, zerrendan ipinita eta bi otso baltz igarolari gailenduta ganean.


DESCRIPCIÓN DEL ESCUDO

Escudo partido: 1º, en campo de plata un árbol de sinople terrazado de lo mismo, con dos lobos pasantes al tronco, uno por detrás y otro por delante. 2º, de azul, cinco iglesias de oro en sotuer, jefe de plata cargado con dos robles de sinople en faja resaltados de dos lobos pasantes de sable.

AITAMEN HISTORIKOA

Busturiko merindadeko eleizatea, Busturiko Axpe be deitua, Mundaka-Gernikako itsasadarraren ertzean dago.

Busturia izena “*Livro dos Linhagens*”en agertzen da. Liburua Pedro de Barcellos kondeak idatzitakoa da –Diego López de Haroren, Bizkaiko Jaunaren, garaikide izan zan–, eta bertan Bizkaiko lehenengo jaunei buruzko istorioak kontatzen ditu. Busturia Vusturio izenagaz agertzen da (XIV. mendea). Liburuan kontatutakoaren arabera, Bizkaiko lehenengo jaunak Busturiko Altamiran –antxina Mundakako mugen barruan egozan– bizi ziran; ezin daiteke ezer egin istorio hori gezurtatzeko, izan be jaun honeek hainbat idatzi sinatu zituen Mundakan, eta argi eta garbi dago Altamiran bizi zirala.




RESEÑA HISTÓRICA

Anteiglesia perteneciente a la merindad de Busturia y conocida también con la denominación de Axpe de Busturia, se encuentra situada en la orilla de la ría de Mundaka-Gernika.

El nombre de Busturia aparece en el “*Livro dos Linhagens*” del conde Pedro de Barcellos, contemporáneo de Diego López de Haro, señor de Bizkaia. Hace referencia el libro a las leyendas relativas a los primeros señores de Bizkaia. Busturia aparece bajo la denominación de Vusturio (s. XIV). Según estas referencias legendarias, los primeros señores de Bizkaia habitaron en Altamira de Busturia, en tierras que antes pertenecieron a Mundaka, y nada puede alegarse a este respecto, para demostrar la falsedad del trasfondo histórico de estas leyendas, ya que estos señores firmaron diversas escrituras en Mundaka y a todas luces parecen haber residido en Altamira.

IKURRIÑA

Deskribapena: saten ehun gorridun zutoihala Busturiko armarría daukala, zilar, beilegi, urdin... kolorekoa eta harriakaz ertzean. Aurrealde: erramuzko koroa eta hego bi behealdean. Armariaren ganean “Ayuntamiento” eta behealdean “De / Busturia”; muturrean “Año / 1947”. Urrezko mendela goian eta ezkerrean, eta eskoian urrezko flekoak. 7 lotura ditu dekorazio bordatu linealagaz eta goialdean elementu metalikoak. Neurriak: 193 x 230 x 120 cm.



BANDERA

Descripción: pendón en raso rojo con el escudo de Busturia bordado en colores plateado, verde, amarillo, azul...y con piedras en el borde. En el anverso: corona de laurel y dos alas en el extremo inferior. Sobre el escudo “Ayuntamiento” y en la parte inferior “De/ Busturia”; en el extremo “Año/ 1947”. Cenefa dorada en el lado superior e izquierdo, y en el derecho flecos dorados. Posee 7 enganches con decoración bordada lineal y elementos metálicos en el lado superior. Medidas: 193 x 230 x120 cm.



■
Bizkaiko Foru Aldundia Diputación Foral de Bizkaia
■